# FAQ COVI-19 MAILEGUA ETA GABEALDIA

2020ko martxoa

Jarraian dituzue, ELKARGIren bitartez bideratuko diren ETEak eta Autonomoak laguntzeko Eusko Jaurlaritzak eman dituen 500 milioi euroko eta Nafarroako Foru Gobernuaren 100 miloi euroko maileguen inguruan sortzen diren ohiko galdera eta haien erantzun zerrenda bat.

1. **Nori zuzenduta daude laguntza hauek?**
   Autonomoak eta ETEak, IFK eta helbide fiskala Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroan dutenak.

2. **Nire egoitza fiskala, autónomo gisa, euskalduna edo nafarra ez den erkidego batean dago, baina Euskadin edo Nafarroan erroldatuta nago. Laguntza hauek eskatu ditzazket?**
   Ez.

3. **"Covid-19 Mailegu"-aren zenbatekoa zertara erabili behar da?**
   Ondoko finantzaketa-eragiketak finantzatu ahal izango dira: 6 hilabetetako egitura-gastuen (alokairuak, amortizazioetarako zuzkidurak, langike-gastuak, aseguruak eta produktibitate-mailaren araberakoak ez diren beste gastu batzuk) likidezia eta finantzaketaren premien estaltzea. Finantzaketa enpresa eskatzailearen finantza-eskagarriaren gehikuntza garbia izan beharko da eta, horregatik ezin izango da erabili zirkulatzaile-lerroak epe laburrera kitatzeko, Covid-19 krisiaren babesean 2020ko martxoaren 1etik aurrera jarritako operazioak izan ezik. Era berean, egungo ezohiko egoera dela eta, likidezia-erraztasun guztiak edo aldi baterako kostu guztiak kendu egin beharko dira, eskatzaileak aukera izango baitu, hala nola, dagozkion foru ogasunak atzeratzea, Aldi Baterako Enplegu-Erregulazioko Espedienteen onarketak dela eta lan kostuak murriztea edota beste dedukzioa ezargarrienak.

4. **¿Dónde puedo iniciar la solicitud de Préstamo Covid-19?**
   https://www.www.elkargionline.com.com/

ELKARGI SGR
Paseo Mikeletegi, 50
20009 DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN
943 309 060 · elkargi@elkargi.es

ELKARGI ARABA
945 231 212
earaba@elkargi.es

ELKARGI BIZKAIA
944 238 228
ebizkaia@elkargi.es

ELKARGI GIPUZKOA
943 309 177
egipuzkoa@elkargi.es

ELKARGI NAVARRA
948 227 022
enavarra@elkargi.es

5. **Nola egin behar du alta, pertsona fisiko edo juridiko gisa?**
   Erabiltzaileak, definizioz, pertsona fisikoa izan behar du. Ondoren, finantzazioaren eskaera egiterakoan, eskatzailea Pertsona Fisikoa eto Juridikoa izan daiteke.

6. **Eskaera egiteko orduan, zer erregistratu behar dut NAN edo ETEaren IFK?**
   ETEaren IFK.

7. **Akatsez, nire NANa jarri badut, nola zuzendu dezaket?**
   Aurreko botoia aukeratu behar dugu, hasierako pantailara joateko, IFK zuzena erregistratu ahal izateko.




8. **Alta eman dezaket Ziurtagiri Digitalaren bidez?**
   Bai, Ziurtagiri Digitalaren bidez erabiltzailearen alta egiten denean, sistemak Ziurtagiritik informazioa jasotzen du bai ordezkariarena bai enpresarena. Kasu honetan, pertsonaren IFK-rekin eta ezarritako pasahitzarekin logeatu behar da.

9. **www.elkargionline.com webean erregistratu naiz baina konfirmazio-emaila ez zait iritsi. Zer egin behar dut?**
   1. Egiaztatu nahi ez den posta-erretilua.
   2. Zerbitzaria kolapsatuta egon daiteke jasotzendituen eskaeren kopuru handiagatik. Ordu bat barru emaila iritsi ez bazaizu, pasahitz berriaren eskaerari ekin berriro hemen: www.elkargionline.com.es/Iniciar Sesión/Registrarme



10. **“%2 partaidetza sozialaren harpidetzak” zer esan nahi du?**
ELKARGIrekin konpromisoa hartzean egin beharreko ekarpen soziala da. Ekarpen hau beharrezkoa da bazkideak direnentzat eta baita bazkideak ez direnentzat. ELKARGIren partaidetza soziala dela-eta, maileguaren balio osoaren gaineko %2 harpidetu behar da. Zenbateko hau bere osotasunean bueltatuko zaie, mailegua ordaintzen bukatzen denean.

11. **ELKARGIko bazkidea izan behar naiz mailegu hauek jaso ahal izateko?**
Ez. Maileguaren balio osoaren %2ko harpidetza egin behar dau, partaidetza soziala gisa.

12. **Bazkidea banaiz, maileguaren balio osoaren %2-ko partaidetza harpideratu behar dut ere?**
Bai, ELKARGIrekin hartutako konpromiso berria hartzean, parte-hartzea handitu egin behar du proportzioan.

13. **Nola egin behar du eskaera Ondasun-komunitate bateko edo sozietate zibileko kidea bazanaiz?**
Eskaera autónomo baten izenean egin beharko da, zenbateko osoagatik. Ondasun-komunitatea osatzen duten gainontzeko pertsonen izena eta NANa jarri beharko da oharren eremuan.

14. **Zeintzuk dira Covid-19 Maileguaren baldintzak?**

Euskadi




Nafarroa



**15. Zenbat eskatu dezaket? Nola kalkulatzen da?**

Eskatu beharreko zenbatekoa 6 hilabeteko egitura-gastuen gehieneko zenbatekoaren gainean kalkulatu behar da, 2019. urteko ustiapen-kontua oinarri hartuta, harturiko ekintzen eraginak kenduta.

**16. Zer ziurtagiri eskatu behar dut Ogasun Publikoarekin egunean nagoela baieztatzeko?**

Zerga-betebeharrak betezen direla egiaztatzen duten bi ziurtagiri daude: dirulaguntzetarako berariazko bat eta jarduera ekonomikoa duten zergadunak espezifikoa den beste bat, "ZERGA BETEBEHARRAK: ZERGADUNAK JARDUERA EKONOMIKOAREKIN" deritzona.

**17. Zer informazioa azaldu behar dut eskaera justifikatzeko memorian?**

Memoria honek likidezia-beharrak adierazi behar ditu, hala nola, EREak, ERTEak, zerga-gerorapenak eta abar.

**18. Zer esan nahi du Covid-19 maileguaren gabealdiak?**

Maileguaren hartzaileak ez du lehen urtean amortizazio-kuotak ordaindu behar.

**19. Covid-19 Maileguagatik interesik ordainduko al ditut?**

Euskadin Covid-19 maileguetarako ezarritako Euribor tasa (gaur egun % negatiboa) +% 0-koa da, hau da, gaur egun ordaindu behar ditudan interesak 0 eurokoak dira.

**20. % 0,375 urteko komisioa nola kalkulatzen da Euskadiko Covid-19 Maileguan? Noiz likidatzen da?**

Maileguaren saldo biziaren gainean kalkulatzen da eta urte bakoitzaren hasieran likidatzen da.

**21. % 0,25eko irekitze komisioa nola kalkulatzen da? Noiz likidatzen da?**

Maileguaren zenbateko osoaren gainean kalkulatzen da eta kontratuaren hasieran likidatzen da.

**22. Nola lortzen da www.elkargionline.com plataformak eskaera egiteko behar duen dokumentazioa nola lortzen da?**

a. **Sozietate Zerga / P.F.E.Z. 2017 eta 2018:** Zure aholkulari fiskala eta kontablearekin kontsulta ezazu.

b. **2019 itxierako Finantza Egoerak**: Zure aholkulari fiskala eta kontablearekin Kontsulta ezazu.

c. **Premia justifikatzeko memoria:** Idazteko zailtasunak badituzu, zure aholkulari fiskala eta kontablearekin kontsultatu ezazu ere.

d. **Banku-pool osoa**: Sistemak dokumentu hau igotzeko eskatzen dizun atal berean, aurkera hau aurkituko duzu: "Plantilla deskargatu". Ondoren, bete ezazu eta igo ezazu.

e. **Ogasun eta Gizarte Segurantza egunean, ziurtagiria**: Zure aholkulari fiskala eta kontablearekin Kontsulta ezazu.

f. **F-dokumentua:** Zure aholkulari fiskala eta kontablearekin Kontsulta ezazu. (Euskadin bakarrik)

g. **Zuritze-prebentziorako ziurtagiria:** Sistemak dokumentu hau igotzeko eskatzen dizun atal berean, aurkera hau aurkituko duzu: "Plantilla deskargatu". Ondoren, bete ezazu eta igo ezazu.

h. **CIRBE-ren onespena**: Sistemak dokumentu hau igotzeko eskatzen dizun atal berean, aurkera hau aurkituko duzu: "Plantilla deskargatu". Ondoren, bete ezazu eta igo ezazu.

i. **Minimis aitorpena**: Sistemak dokumentu hau igotzeko eskatzen dizun atal berean, aurkera hau aurkituko duzu: "Plantilla deskargatu". Ondoren, bete ezazu eta igo ezazu.

**23. 2020 urtearen aurreko hiru urteetan galerak egon badira, Covid-19 mailegua emango al didate?**

A priori, ez. Aurreko urteetako datuek enpresa edo autonomoaren egoera kaudimendua dela, Covid-19ak sortutako krisia hasi arte.

**24. Eskaera bat aldatu dezaket? Eskaera bat ezabatu dezaket?**

Bai, bi egoeretan.



**25. Autonomoen jardueran baja ematea erabakitzen badut, orduan Covid-19 Mailegua eskatu dezaket?**

Ez, eskatzaileak jarduera ekonomiko bat izan behar du.

**26. Mailegua eska dezaket, baina finantza erakunde bat baino gehiagoren artean banatuta?**

Bai, egin dezakezu.

**25. Zer gertatzen da enpresa edo autónomo batek kreditua itzultzeko baldintzak betetzen ez baditu?**

Covid-19 Mailegua sinatzean, mailegua amortizatzeko ordainketei aurre egiteko legezko eta kontratuzko konpromisoa hartzen da. Beste edozein mailegu edo finantzaketa-eragiketa estadarren betebehar berberak ditu.